



Salvador A. Jose de Gorociza

CRISTIÑAU DOCTRINIA

AITA GASPAR ASTETEC

ERDERAZ ESCRIBIDUA

ETA GUERO

D. Gabriel Menendez de Luracac

GAUZA ASCO ERANTZITA ATERA EBANA.

ORAIN EUSQUERARA BIYORTUTA, URTEITEN DAU
ARGUITARA CERBAIST GUEIYAGOTURIC.

LAUDIYOCO ABADE JAUNEN

encarguz eta costuz.

DIAR DIRIAN DAIVEZCOACAZ.

Eta orain bigarrenez imprimidu da

BILBON:

Viuda de N. Delmas-en imprenta edo silloteguijan.

1857, GARDEN URTIAN.

Salduten da bere librerijan Correo callian.

SARTZAIYERIA.

Cristiñau fiyel guztiyac
dagoz obligaduric
debociño artutera
euren biyotz guztiric,
Jesus gueure arguiyaren
Curtze santuari:
Non il gura izan eban
gu aleretiarrren
gueure pecatnaren,
ta areriyo gaistoaren
aguindupelaric.

Orregaitaren bada
ecandu biar zara
sarri ciñatutera
ta santiguetara
eguinic iru curtze:
Becoquiyan bala,
Jaincoac librau gaizan
gogo deunguetaric:
bigarrena aoan,
Jaincoac librau gaizan
berba deunguetaric:
guero bularrian,
Jaincoac librau gaizan
obra-gogo charrerie:
onelan esanic
curtze santiaren ✠



señalia gaitic
gueure ✕ areriyoetarie
libradu gaguizuz
gueure Jauna, ✕
eta Jangoicoa.
Aitiaren, ta ✕ Semiaren, ta
Espiritu Santuaren ucenian Amen.

AITA GURIA.

Aita guria Ceruetan zagozana : santificadu bedi zure icena: betor gugana zure erreinua, eguin bedi zure borondatia celan Ceruan, alan lurrian. Emon eguiguzu gaur gueure egunian eguniango oguiya : eta parcatu eigu-zuz gueure zorrac, gueue gueure zordunai parquetan deuseguzan leguez : eta ichi ez eiguзу tentaciñoan yausten : baya libradu gaguizuz gacheric. Amen.

AVE MARIYA.

Ave Mariya, graciya betia, Jauna da zugaz, bedeincatia zara zu andra guztiyen artian, ta bedeincatua da zure sabeleco frutua Jesus. Santa Mariya Jangoicoaren Ama, erregatu eguizu gu pecatariyoc gaiti, orain ta gueure eriyotzaco orduan. Amen.

CREDOA.

Sinistuten dot Jangoico Aita guztiz pode-

roso. Ceruraren eta Luurraren Criyadorigan, eta bere Seme bazar Jesu Cristo gueure Jaunagan, cein sortuzan Espiritu Santuaren obraz ta graciya; yayo zan Mariya Virginia ganie: Padedidu eban Poncio Pilatosen poderiaren beian, izan zan curtificadua, ila ta sepultadua; yatzi zan infenuetara, aric iru garren egunian erresucitadu zan ilen arteric; igon eban ceruetara, an dago yarriric Aita Jangoico guztiz poderosoaren alde escoan; aric etorricoda biciya; eta ilac juzguetan. Sinistuten dot Espiritu Santuagan, Elessa Santa Catoliquia, Santuen Comuniñoia, pecatuen paraciñoia, araguiyaren erresurreiñoia, eta seculaco bicitsia. Amen.

SALVIA.

Salve Erreguiña, ta ama misericordiazcoa, bicitzia ta dulzuria. Salve esperanza gueuria; Zuri deiyez gagoz Evaren ume desterraduoc; Zugana gagoz eizpurua, llantu ta negar eguiten dogula negarrezco erri onetan. Ea bada Andriya Abogada gueuria, biyortu eguizuz gugana zure misericordiazco beguiyoc, ta desterru au igaro azquero, eracuscuzu Jesus, ceure sabeleco frutu bedeincatua. ¡ O Clemenciazco Ama! ¡ O piadosia! ¡ O Dulce Virgina Mariya! Erregutu eguizu gu gaitic Jangoicoa-

ren Ama Santia, mercedu daigun alcancetia
Jesu Cristoren promesac. Amen Jesus.

*Jangoicoaren Legueco Mandamentuac dira
amar : lelengo irurac pertenecietan yacaz
Jangoicoaren onriari: eta beste zazpirac
progimuairen probechubari.*

Lelengoa, Jangoicoa ametia gauza guzti-
yen ganian.

Bigarrena, bere icen santuagaz juramentu
alperrie ez eguitia.

Irugarrena, Domecac ta jayac gordetia.

Laugarrena, Aila, ta Ama onretia.

Bostgarrena, iñor il ez eitia.

Seigarrena, araguiuco pecaturic ez eguitia.

Zazpigarrena, iñori ecer ostu ez eitia.

Zortzigarrena, iñori falso testimonioric ez
ereguitia, ta ez guzurric esatia.

Bederatzigarrena, progimuairen Senar-
emazteric ez desietia.

Amargarrena, iñoen ondasun bidebagaco-
ric ez gura izatia.

Amar mandamentu onecc sartuten dira
bitan, Jangoicoa amau, ta serbitian gauza
guztiyac baño gueyago eta progimua gueure
burua leguez. Amen.

*Fedeco articuluac dira analau: lelengo zaz-
pirac dira Jangoicotasunaren ganian, ta
beste zazpirac Jesu Cristo gueure Jaun,*

*Jangoico, ta guizon eguiyazcoaren guizon-
tasun santuaren ganian.*

Jangoicotasunaren ganecoac dira onecc.

Lelengoa, sinusti Jangoico guztiz podero-
so bazar balegan.

Bigarrena, sinistu dala Aitia.

Irugarrena, sinistu dala Semia.

Laugarrena, sinistu dala Espiritu Santua.

Bostgarrena, sinistu dala Criyadoria.

Seigarrena, sinistu dala Salvadoria.

Zazpigarrena, sinistu dala Glorificadoria.

Guizontasunaren ganecoac dira onecc.

Lelengoa, sinistu Jesu Cristo gueure Jau-
na, guizona dan partez, sortua izan zala Es-
piritu Santuaren obraz, ta gracyaz.

Bigarrena, sinistu yayo zala Mariya Virgi-
nia ganic, Señora au doncella zala, Semia ya-
yo baño lenago, yayoqueran, eta yayo ez-
quero.

Irugarrena, sinistu artu ebala eriyotzia, ta
pasiñoia gu pecatariyoc salbetarren.

Laugarrena, sinistu yatzi zala infer uetara
eta atera cituzala bere etorrera santuñen be-
guira egozan Guraso Santuen arimac.

Bostgarrena, sinistu irugarren egunian
biztu zala ilen arteric.

Seigarrena, sinistu igo ebala Ceruetara,

eta an dagoala yarririe Aita Jangoico guztiz
poderosoaren escoatati.

Zazpigarrena, sinistu arie etorrico dala bi-
biyac, eta ilac juzquetan: onai emoiteco glo-
riya bere mandamentu santuac gorde citue-
zalaco: eta deungai betico infernua, gorde et-
zituezalaco.

*Cristiñau doctriniaren explicaciñoia itandu,
ta erantzuten dala.*

Itanduten dot. Cristiñau zara?

Erantzuten dot. Bai Jauna, Jangoicoaren
graciya gaitie.

I. Cristiñauaren icen ori noganic yatorzu?

E. Cristo gueure Jauna ganie.

I. Cer esan gura dau Cristiñauac?

E. Cristoren guizona.

I. Eta cer esan gura dau Cristoren guizo-
nac?

E. Guizon bat, ceinec daucan Jesu Cristo-
ren fedia, Bautismu Santuan artu ebana, eta
cein dagoan bera serbiyetaco opaturic.

I. Cein da Cristiñauaren señaia?

E. Curtze santua.

I. Cegaitie?

E. Dalaco Cristo curtzificaduaren irudiya,
ceinetan erredimidu guenduzan.

I. Ceinbat modutan eguiten dau Cristiñauac
señale ori?

E. Bitan.

I. Ceinzuc dira?

E. Ciñatutea ta Santigueta.

I. Cer da ciñatutia?

E. Da eguitia iru curtze escu escoaco or-
coroagaz; lelengoa becoquiyan, bigarrena
aoan, irugarrena bularrian, gueure Jangoi-
coagaz berba eguitendogula.

I. Eracutsi celan?

E. Curtzse santiaren ✕ señaia gaitie,
gueure ✕ areriyoetari, libradu gaguizuz ✕
gueure Jauna, ta Jangoicoa.

I. Cegaitie ciñatuten zara becoquiyan?

E. Jangoicoac libradu gaguizanzat pensa-
mentu deunguetarie.

I. Cegaitie aoan?

E. Jangoicoac libradu gaguizanzat berba
deunguetarie.

I. Cegaitie bularrian?

E. Jangoicoac libradu gaguizanzat obra,
ta deseo deunguetarie.

I. Cer da Santigueta?

E. Da eguitia curtzse bat escu escoaco atz
bivacaz, becoquirie bularrera, ta ezquerreo
sorbaldarie escoacora, ucentetan dogula Tri-
nidade guztiz santua.

I. Eracutsi celan?

E. Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren uenian. Amen.

I. Nos eguin biar dozu señalet ori?

E. Obra onen bat asten dogun guztiyan, edo tentaciñoren baten, necesidade, edo peligroren baten aurquituten garianian: baita bere, oeric yaiguitorduan, etseric urteitorduan, Elessan sartutorduan, yaten asitorduan, eta oera yoatorduan.

I. Cegaitic orrenbeste bider?

E. Cegaitic dempora, eta lecu guztiyetan tentau, eta perseguietan gaituezan gñeure areriyoac.

I. Ce areriyo dira orrec?

E. Demoninua, Mundua, ta Araguia.

I. Bada curtziac baucio orreen contra indarrie?


E. Bai Jauna.

I. Nondi dauco curtziac indar ori?

E. Cristoc berian bere eriyotziagaz beneidu cituzalaco.

I. Curtzia adoretan dozunian celan esaten dozu?

E. Adoretan zaituguz, Cristo, eta bedeinquetan zaituguz ceure curtze santuagaz erredimidu cendulaco mundua.



Cristiñauac yaquin biar dituzar gauzac.

Ecusi dogu cristiñaua zariana, Cristiñauaren iceneti, ta señalet: Esan eguidazu orain.

I. Ceimbat gauza yaquin, ta entendidu biardituz Cristiñauac uso errazoezcora eltzaiten danian?

E. Lau gauza.

I. Ceinzuc dira?

E. Lelengoa yaquitia cer sinistuco daben: bigarren cer escatuco daben, irugarrena cer eguin edo obrauco daben: eta laugarrena cer artu, edo errecibiduco daben.

I. Celan yaquingo dau cer sinistuco daben?

E. Yaquinic eta entendiduric Credoac edo articulu fedecoac.

I. Celan yaquingo dau cer escatuco daben?

E. Yaquinic eta entendiduric Aita guria, eta beste Elessa ama Santiaren oraciñoc.

I. Celan yaquingo dau cer obrauco daben?

E. Yaquinic eta entendiduric Jangoicoaren legueco amar mandamentuac, host Elessacoac, eta obra misericordiyazecoac.

I. Celan yaquingo dau cer errecibiduco daben?

E. Yaquinic eta entendiduric zazpi Sacramentuac.



Cristinau doctrinariaren lelen go partia, ceinetan espliketan dirian Credo a eta Articulu Fedecoac.

- I. Noc esan eban Credo a ?
E. Apostoluac.
I. Cetaraco ?
E. Guri fede santuco gauzac iracasteco.
I. Eta zue cetaraco esalendozu ?
E. Cristina uoc daucagun fediau confesetaco.
I. Cer da fedia ?
E. Ecusi ezloguna sinistutia.
I. Ecusi cendun zue yayoten Jesu Cristo ?
E. Ez Jauna.
I. Ecusi cendun ilten edo Cerura igoiten ?
E. Ez Jauna.
I. Eta sinistuten dozu ?
E. Bai, Jauna, sinistuten dot.
I. Cegaitic sinistuten dozu ?
E. Jangoicoac alan aguertu deutzalaco
Elessa Ama Santiari, ta onec alan iracazten deuzculaco.
I. Ce gauza dira cristinana leguez, daucazuanac, eta sinistuten dozuanac ?
E. Erromaco Elessa Ama Santiac daucazan ta sinistuten dituzanac.
I. Ta cerzue dira orreec ?
E. Fedeco Articuluac, Credoan dagozan leguez.

- I. Ce gauza dira Fedeco Articuluac ?
E. Dira Fedeco misteriyoetaric principalenac.
I. Cetaraco dira Fedeco Articuluac ?
E. Emoiteco ezauera arguiyago bat gueure Jangoicoarena, eta Jesucristo gueure Erredentoriarena.
I. Nor da gure Jangoicoa ?
E. Da gauza bat esan eta pensau al leitequianic andiyena ta miragarriyena : Jaun bat ecin gueiyagoan ona, poderoso, sabiyoa, justoa, gauza guztiyen principiyoa eta fina.
I. Trinitade guztiz santua nor da ?
E. Da Jangoicoa bera, Aitia, Semia eta Espiritu Santua, iru persona distinta, eta Jangoico eguiyazco bazar bat.
I. Aita Jangoicoa da ?
E. Bai Jauna.
I. Semia Jangoicoa da ?
E. Bai Jauna.
I. Espiritu Santua Jangoicoa da ?
E. Bai Jauna.
I. Iru Jangoico dira ?
E. Ez Jauna ezpada Jangoico eguiyazco bazar bat.
I. Aitia Semia ?
E. Ez Jauna.
I. Espiritu Santua da Aitia edo Semia ?
E. Ez Jauna.
I. Cegaitic ?

E. Dircalaco personac bata bestia eztiriac, izan arren Jangoico eguiyazco bacar bat.

I. Orlan ceinbat izaite edo naturaleza, entendimentu eta borondate dauco Jangoicoac?

E. Naturaleza bacar bat, entendimentu bat, eta borondate bat.

I. Eta ceinbat persona?

E. Iru distinta, ceintzuc dirian Aitia, Semia, eta Espiritu Santua.

I. Celan da Jaungoicoa guztiz poderosoa?

E. Bere gura izanagaz bacarrie eguiten dabelaco gura daben guztiya.

I. Celan da Criyadoria?

E. Gauza guztiyan eguin cituzalaco ecebere ecerie.

I. Eta ceu celaraco eguin cinduzan Jangoicoac?

E. Bera bicitza onetan ametaco ta serbiyeta, eta guero gloriyan belico gozetaco.

I. Celan da Salbadoria?

E. Graciya emoten dabelaco, eta pecatuac parcatuten dituzalaco.

I. Celan da Glorificadoria?

E. Gloriya emaiten deutzalaco bere gracyan ilten danari.

I. Bauc Jangoicoac, gue leguez gorputzie?

E. Jangoico dan partez, ez Jauna dalaco, espiritu purua; baya bai guizon dan partez.

I. Iru personetarie cein eguin zan guizon?

E. Bigarrena, cein dan Semia.

I. Aitia eguin zan guizon?

E. Ez Jauna.

I. Espiritu Santua eguin zan guizon?

E. Ez Jauna.

I. Cein bada?

E. Bacarrie semia ceineri, guizon eguin azquero, derecho Jesu Cristo.

I. Orlan, bada, nor da Jesu Cristo?

E. Da Jangoico biciyaren Semia, guizon eguin zana, gu erredimiyetarren, eta guri celan bici eracustiarren.

I. Eta ceinbat izaite edo naturaleza, entendimentu, eta borondate dauco Jesu Cristoc?

E. Naturaleza bi, bata Jangoico dan partez, eta bestia guizon dan partez; entendimentu bi, Jangoico dan partez bata, eta guizon dan partez bestia; eta borondate bi, bata Jangoico dan partez eta bestia guizon dan partez.

I. Eta ceinbat persona eta memoriya dauco?

E. Persona Jangoicozco bat bacarrie, cein dan Trinidad guztiz Santuco bigarren personia; eta memoriya bat bacarrie guizon dan partez, bada Jangoico dan partez, eztan hiar memoriyarie, gauza guztiac bere aurrian daucazalaco.

I. Cer esan gura dau Jesusec?

E. Salvadoria.

I. Cetaraco salbau guinduzan?

E. Gueure pecatuetic, eta diabruaren cautiberiyoie.

I. Cer esan gura dan Cristoe?

E. Ungidua.

I. Cegan izan zan ungidua?

E. Espiritu Santuaren gracyaz, eta doez.

I. Cristo gueure Jauna celan sortu zan, eta celan yayo zan Doncella zan ama ganic?

E. Jangoicoac ori milagroaz eguiten ebala.

I. Ce misteriyo da ori?

E. Encarnaciñoco misteriyoa.

I. Cer sinistuten dozu encarnaciñoco misteriyoan.

E. Trinitade guztiz Santuco bigarren persona, cein dan Semia, guizon eguin zala Ama Virginiaren errai guztiz garbiyetan, ez guizonaren obraz ezpada Espiritu Santuaren birtutez, bere doncellatasunaren calte bage.

I. Ceinbat gauza obrau cituzan, bada Espiritu Santuac Encarnaciñoco Misteriyoan?

E. Lau gauza.

I. Ceinzue dira?

E. Lelengoa, formau eban gorputz bat Ama Virginiaren Sabel Santuan bere odol guztiz garbiyagaz. Bigarrena, criyadu eban Arima bat ecebere eceric. Irugarrena, gorputza ta arimia batu cituzan alcarregaz. Laugarrena, Trinitade guztiz santuco bigarren personiac beragan artu, ta beragaz batu cituzan gorputz, ta arima onecc; eta alan leen Jangoico

baño etzana, Jangoico izaitia galdu bage gueralu zan guizon eguinic; ceinari dericho Jesu Cristo.

I. Eta celan yayo zan milagroaz?

E. Urteiten ebala Mariya Santisimaren Sabeleric, bere doncellatasunaren calte bagaric, eguzquiyaren arguiyac cristal bateli urteiten daben leguez, cristala urratu, ta loitu bagaric.

I. Bere ama guero beti doncella bici izan zan?

E. Bai, Jauna, beti.

I. Cegaitic Curtzian il gura izan eban?

E. Gu libretarren pecaturic, eta betico eriyotzaric.

I. Celan, bada, yausi guintzan betico eriyotza orretan?

E. Pecatu eguiten ebala Adan gure lelen-go gurasoac, ceinegan guztiyoc eguin guendun pecatu.

I. Bauco Cristoc Aitaric, edo Amaric?

E. Jangoico dan partez dauco Aita, cein dan Aita eternoa eta ezlauco Amaric: eta guizon dan partez dauco Ama, cein dan Ama Virginia, eta ezlauco Aitaric.

I. Eta nosic onacoa da Jesu Cristo?

E. Jangoico dan partez beti beticoa Aita Eternoa ta Espiritu Santua leguez; baya guizon dan partez Ama Virginiaren sabel santuan zortu zanic onacoa.

I. Cer derechazu dala á Infernua, ceinetara yatzi zan, il azquero, Cristo gueure Jauna?

E. Ez condenaduen lecuá, ezpada Justoac agozan Linboa.

I. Bada, bago infernubat baño gueiyago?

E. Bai Jauna, lau dagoz lurraren biyotzian: eta derecho condenaduen Infernua. Purgatoriyoa, seiñen Linboa, eta Justuen Linboa, edo Abrahamen Senoa.

I. Eta cer dira orreec?

E. Condenaduen Infernua da lecuabat, ceinetara yoaten dirian pecatu mortalien ilten-dirianac, an tormentu, ta pena artian betico egoteco. Purgatoriyoa da lecu bat, ceinetara yoaten dirian graciyan ilten dirianen arimac, baya pagau baya guztiz euren pecatuen zorra an pena icaragarriyacaz garbituac izaiteco: Seiñen Linboa da lecu bat, ceinetara yoaten dirian, uso errazoezcora eldu baño leenago batiatu bagaric ilten dirianen arimac, an beti egoteco Jangoicoa egunó ecusi bagaric: Eta Justuena, edo Abrahamen Senoa da lecu bat, ceinetara yoaten cirian, Jesu Cristoc gu erredimidu baño leenago, graciyan ilten cirianen arimac, guztiz garbituta egozanac: Eta lecu berbera, ceinetara benetan yatzi zan Jesu Cristo.

I. Celan yatsi zan?

E. Yatsi zan bere arimia, Jangoicotasunagaz baturic.

I. Eta bere gorputza celan gueratu zan?

E. Baturic Jangoicotasun beragaz.

I. Celan biztu zan irugarren egunian?

E. Batulen ciriala barriro bere gorputz, ta arima gloriáz betia, osterá iños il ezeiteco.

I. Ceinbat garren egunian igo eban Ceruetara?

E. Berroquei garren egunian.

I. Ce modutan?

E. Bere poderiyo, ta birtutez.

I. Cer esan gura dau yarriric egoitiac Aita Jangoico guztiz poderosoaren alde escoan?

E. Jesu Cristoc Jangoico dan partez daucala gloriya bardina Aitiagaz, ta Espiritu Santuagaz: eta guizon dan partez beste guztiyac baño gueyago.

I. Nos etorrico da biciyac, eta ilac juzguetan?

E. Munduaren acabuan.

I. Eta orduan biztuko dira il guztiyac?

E. Bai Jauna, leen cituezan gorputz, ta arima eurecaz.

I. Eta munduaren acabua baño leenago juzgaduac izango gara?

E. Bai Jauna, guztiyac ilten dirianian juzgadu, ta sentenciaduco dituz Jangoicoac: onac Ceruco gloriya gozetara, eta deungac betico penac padeci yetara Infernuan.

I. Nor da Espiritu Santua?

E. Trinitade guztiz Santuco irugarren

Persónia: Aitia ta Semia leguez Jangoico eguiyazcoa dana.

I. Cer sinistuten dozu esaten dozunian: sinistuten dot santuen comuniñoa?

E. Cristiñau fiela e dauquiela parte [batac bestien obra onetan, gorputz baten zatiyac leguez, cein dan Elessia.

I. Cer da Elessia?

E. Da cristiñau fiel guztiyac batera eguiten daudeen gorputza, ceinen burua dan Aita Santua.

I. Nor da Aita Santua?

E. Da Sumo Pontifice Erromacoa, Cristoren Vicariyo, edo ordeco mundu onetan, ceineri guztiyoc obediu biar deusagun.

I. Cer esan gura dau pecatuen paraciñoac?

E. Elessa Santa dagozala pecatuac parquetaco mediyoac, ceinzue dirian Sacramentu Santuac.

I. Cer esan gura dau araguiyaren erresurreciñoiac?

E. Judiciyoco egunian guztiyoc bizlucogariala orain daucaguzan gorputz, ta arima euecaz: artzaiteco bacoehac merceduan daben aloguera, edo castigua.

I. Cer esan gura dau seculaco bicitziac?

E. Bicitzau acabau azquero, izango dala beste betico bat, edo iños acabaueco eztana: ceinetan egongo dirian, Jangoicoa Jangoico dan arte guztiyan, onac Ceruan gloriya goce-

tan eta. deungac Infernuban pena icaragarriyac padecietan.

I. Credo a, ta Fedeco Articulu euz ganeti beste gauzaric sinistuten dozu?

E. Bai Jauna, Escritura Santan dagoana, eta Jangoicoac bere Elessiari aguertu deutzan guztiya.

I. Ce gauza dira orree?

E. Ez ori itandu niri, nasalaco yaquituriya bagacia: Doctoriac dituz Elessa Ama Santiac erantzuten yaquingo daudeenac.

M. Ondo diñosu: bada Doctoriari yagoque, ta ez zuri, gure fede santuco gauza guztiyen contu emoitia zuretzaco asco da Articuluena, Credoan dagozan leguez emoitia.

Cristiñau Doctriniaren bigarren partia ceinetan espliketan dan cer escatu biar dan; eta Elessa Ama Santiaren oraciñoac.

Ecusi dogun celan daquizun cer simistu biar dozun, cein dan lelengoa: gatozan bigarreneta, cein dan cer escatu biar dan yaquitia.

Esan eguidazu.

I. Noc esan eban Aita guria?

E. Jesu Cristoc.

I. Cetaraco?

E. Guri oraciño eguiten iracasteco.

I. Cer da oraciño eguitia?

E. Da Jangoicoagana biyolza ereguitia, ta berari mesediac escatutia.

I. Ceinbat modutacoa da oraciñoa?

E. Bitacoa.

I. Ceintzue dira?

E. Gogoagazcoa, edo mentala; eta aoagazcoa edo bocala.

I. Cer da oraciño mentala?

E. Da arimaco sensun, edo potenciyaaz eguiten dana: memoriyagaz gogora gauza onen bat ecarten dogula: entendimentuegaz gogoan gauza ori darabilgura, ta bere ganian pensetan dogula: eta borondatiagaz afectoac, eta deseo santuen frutu onac ateraten doguzala: contu daigun, pecatuen gorrotoa, humiltasuna &a. edo gogo onen batzue artzaiten doguzala, celangoac dirian, ondo confesetaco, bicitzia obaluteco, edo besteren batzue.

I. Cer da oraciño bocala?

E. Da berbacaz eguiten dana celangoa dan eguiten doguna Aita guria esaten dogunian.

I. Eta celan eguin biar da oraciñoa?

E. Atenciñoagaz, humildadeagaz, confianciagaz, eta perseberanciagaz.

I. Aita guria ezaten dozunian nogaz berba eguiten dozu?

E. Gueure Jaun eta Jangoicoagaz.

I. Non dago gure Jangoicoa?

E. Lecu guzliyetan, especialmente Ceruan, eta Santísimo Sacramentu Altaracoan.

I. Eta Jesu Cristo non dago?

E. Jangoico dan partez lecu guzliyetan, eta guizon dan partez bacarrie dago Ceruan eta Santísimo Sacramentu Altaracoan.

I. Cein da oraciñoen artian onena?

E. Aita guria.

I. Cegaitie?

E. Cristoc bere aoti esan ebalaco, Apostoluac escatu ta.

I. Cegaitie gueiyago?

E. Daucazalaco zazpi escari caridadeti daitozanac.

I. Ceintzue dira?

E. Lelengoa da santificadu bedi zure icena.

I. Cer escatuten dozu escari orretan.

E. Jangoicoaren icena izan dila ezagutua, eta onradua mundu guztian.

I. Cein da bigarrena?

E. Betor gugana zure erreinua.

I. Cerescatuten dozu escari orretan?

E. Erreinau daiyala Jangoicoac gura ari-melan emen lurrian graciayaz, eta guero emon daigula gloriya.

I. Cein da irugarrena?

E. Eguin bedi zure borondatia celan Ceruan, alan lurrian.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Eguin daigula Jangoicoaren borondatia
turrian gagozanoc, Ceruan dagozanac eguiten
daudeen leguez.

I. Cein da laugarrena?

E. Emon eguiguzu gaur gueure egunian
eguniango oguiya.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Emon daigula Jangoicoac gorputzeraco
mantenimentua, eta arimaco graciya, ta Sa-
cramentuac.

I. Cein da bostgarrena?

E. Parcatu eguiguzuz gueure zorrac, guenc
gueure zordunai parquetan deutseguzan le-
guez.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Jangoicoac parcatu deiguzala gueure
pecatuac, guenc parcatu deutsegun leguez,
gach eguin deusecunai.

I. Cein da seigarrena?

E. Ichi ez eiguzu tentaciñoan yausten.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Jangoicoac ezteigula ichi yausten ez
consentietan pensamentu, ta tentaciño deun-
guetan, ceintzueaz demoniñoac pecatuen yausi
eraguin gura deusecun.

I. Cein da zazpigarrena?

E. Baya libradu gaguizuz gacherie.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Jangoicoac libradu gaizala arimaco ta
gorputzeco gach, eta peligru guztiyeticaric.

I. Cegaitic diñozu asiqueran, *Aita guria*
Ceruetan zagozana?

E. Jangoicoagana biyotza ereguiteco, ta
escatuteco mesediac humildadiagaz ta con-
fianziagaz.

I. Cer esan gura dau acabuan esaten do-
zun, berbiac: Amen?

E. Alan izan deila.

I. Ceintzue dira Ama Virginiari esaten
deutsa zuzan oraciñoric onenac?

E. Ave Mariya, eta Salvia.

I. Noc esan eban Ave Mariya?

E. Angueru San Gabrieleac Ama Virginiari
barri onac emoitera etorri zanian.

I. Noc esan eban Salvia?

E. Elessa Ama Santiac dauco beretzacozat
artuta.

I. Cetaraco?

E. Ama Virginiari mesediac escatuteco.

I. Ave Mariya edo Salvia esaten dosunian
nogaz berba eguiten dozu?

E. Ama Virginiagaz.

I. Nor da Ama Virginia?

E. Da Señora bat birtutez, eta graciyaz
betea, Jaungoicoaren ama eta ceruan dagoana.

I. Eta Altaran dagoana nor da?

E. Da ceruan dagoanaren imagina, eta iru-
di bat.

I. Cetaraco dago an?

E. Guri acordarazoteco Ceruan dagoana,

eta bere imaginia dalaco erreberenciya eguin daiyogunzat.

M. Bada beste ainbeste eguin biar deutsezu beste Santuen imaginai eta gorpu-zatiyai bere.

I. Eguin biar deutsegu oraciño Angueruai, eta Santuai bere?

E. Bai Jauna, gueure bitertecoai leguez.

I. Ce gauza dira Angueruac?

E. Dira, Ceruan Jangoicoa gocetan dagozan Espiritu zoriyoneco balzuc.

I. Cetaraco eguin cituzan Jangoicoac?

E. Bera beti alabadu, ta bedeincau dagui-yenzat.

I. Cetaraco gueiyago?

E. Bere Ministroac leguez Elessia gobor-netaco, eta guizonac yagoteco.

I. Orlan zuc bere baucazu zure Angueru guaidacoa?

E. Bai Jauna, baucat, eta bacoehac dauco beria.

M. Bada artu eguiyozu debociño andi bat, eta egunian egunian encomendau zaquiyoz.

Irugarren partia, ceimetan espliquetan dan cer eguin, edo obrau biar dan.

Ecusi dogu celan daquizun cer sinistu, ta cer escatu biar dozun: dacusgun orain celan daquizun cer obrau biar dozun.

I. Esan eguizu: cein da Jangoicoaren le-gueco lelengo mandamentua?

E. Jangoicoa ametia gauza guztiyen ganian.

I. Noc ametan dan Jangoicoa?

E. Bere mandamentuac gordetan dituzanac.

I. Cer da Jangoicoa ametia gauza guztiyen ganian?

E. Gurago izaitia gauza guztiyac galdu, bera ofendidu baño.

I. Cetara gueiyago obliguetan gaituz man-damentu onec?

E. Bera bacarrie adoretara gorputzeco ta arimaco erreberenciya guztiyagaz, beragan sinistu ta esperetan dogula fede biciyagaz.

I. Noc eguiten dau pecatu onen contra?

E. Idolo, edo Jangoico falsoac adoretan edo sinistuten dituzanac: fediareen contraco gauzaren bat sinistuten dabenac; edo fedeco misterio santuren baten dudetan dabenac; edo doctrinia biar dan leguez eztaquiyanac: Fedeco esperanzaco ta caridadeco actoac, eguin biar dirianetan eguiten eztituzanac; Jangoi-coagan biar dan asperanzia galzaiten dabenac; edo Sacramenturen bat disposiciño e charragaz artzaiten dabenac.

I. Noc gueiyago?

E. Aztuen contuac, ta barri emonac sinis-tuten dituzanac: eta sorguinqueriyac, edo beste onelango bide bagaco gauzaren-batzue eguiten dituzanac.

I. Cein da bigarrena?

E. Bere icen santuagaz juramentu alperrie ez eguitia.

I. Noc eguiten dau juramentu alperrie?

E. Juramentu eguiten dabenac eguiya bagaric, justiciya bagaric eta necesidade bagaric.

I. Cer da juramentu eguiya bagaric eguitia?

E. Da juramentu eguitia guzurragaz, edo batec uste dabenaren contra.

I. Eta ce pecatu da juramentu eguiya bagaric, edo dudiagaz eguitia?

E. Pecatu mortala, Jauna, juramentua gauza chiquer baten ganian bada bere.

I. Eta inñori on eguitiaren, edo inñoc erregututa, eguin lei, guzurragaz juramentu?

E. Ez da mundu guztiyac gaiti bere.

I. Cer da juramentu justiciya bagaric eguitia?

E. Da juramentu eguitia gauza gaisto, edo charren bat eguingo dala; contu daigun, proximuari gachen bat eguingo deusala.

I. Eta ce pecatu da justiciya bagaric juramentu eguitia?

E. Pecatu mortala, gauza charra pisuzcoa bada: eta arina bada, pecatu veniala.

I. Cer da juramentu necesidade bagaric eguitia?

E. Da juramentu eguitia eguin biar andi bagaric, edo ecerez queriyac gaitic.

I. Eta ce pecatu da ori?

E. Pecatu beniala, saltau ez azquero juramentuaren eguiyac, ez justiciyac.

I. Eta gauza onen bat eguiteco juramentu, voto, edo promesa daucanac cunplidu biar dau?

E. Bai Jauna, eta ez cunpliyetia, edo lar luzatutia da pecatu mortala, gauza pisuzcoaren ganian izan azquero.

I. Eta pecatu da criaturac gaitic juramentu alperrie eguitia?

E. Bai Jauna, euretan euren criadoriari juramentu eguiten yacolaco.

I. Ce modutan eguiten da juramentu Criaturac gaitic?

E. Esaten dala, contu daigun, neure arimia gaitic, Cerua gaitic, lurra gaitic &c. au alanda.

I. Ce erremediyo dago juramentu alperrie ez eguiteco?

E. Artutia usua esateco bai, edo ez, Crisloc iracasten deuscun leguez.

I. Eta mandamentu onetan eragozten da beste gauzaren bat gueiyago?

E. Bai, Jauna, eragozten da blasfemia bere, cein ezlan besteric, ezipabere berba lotsabacoren batzue Jangoicoaren, edo bere Santuen contra esatia; eta da pecatu mortala.

I. Cein da irugarrena?

E. Domecac eta Jayac gordetia.

I. Noc gordetan dituz Jaiyac?

E. Meza osoa enzun, eta bearric eguiten ezdabenac necesidade bago euretan.

I. Eta ce pecatu da Jai egunetan necesidade bagaric biar eguitia?

E. Pecatu mortala, ordu biz gora eguiten bada; eta aez beera bada, pecatu beniala gueiyen partez.

I. Cein da langarrena?

E. Aila, eta Ama onretia.

I. Noc onretan dituz gurasoac?

E. Obedecidu, socorridu, eta erreberenci-yetan dituzanac.

I. Noc eguitendau onen contra pecatu mortala?

E. Etzeco gobernucio, eta aciyera oneco gauzetan gurasoen esanie eguin gura eztaudeen humiac: euren necesidadetan socorridu, edo lagundu gura ezteutseenac; birao, barre, edo burla eguitei deuteenac; escua eranci, edo cematuten dituezanac; eta euren consejuta bayezcoa bagaric escontzaraco bidia artzaiten dituezanac.

I. Nortzuc besteric sartzaiten dira gurasoen icenian?

E. Nagusiyagoac edadian, dignidadian eta gobernuan.

I. Eta mandamentu onetan sartzaiten dira humiac euren gurasoen alderaco dauquiezan obligaciñoac baño gueiyago?

E. Bai, Jauna, nagusiyagoac euren azpi-coen alderaco, eta gurasoac euren humien alderaco dauqueezanac bere.

I. Eta ceintzuc dira orreec?

E. Emoitia yan edana, doctrina ona, egen-lu ona, eta bere denporan ondo yagoquean staudua.

I. Eta ce pecatu da orreetan faltetia?

E. Gueyen partez, pecatu mortala.

I. Cein da bostgarrena?

E. Iñor il ez eitia.

I. Cer eguiduten da mandamentu onetan?

E. Ez iñori gachic eguitia, ez obraz ez ber-baz, ezta desioz bere.

I. Noc eguiten-dau pecatu mortala mandamentu onen contra?

E. Bere buruari edo progimuari eriyotzia, edo beste gach andiren bat desectan deutse-nac, edo gorroto deutenac; edo norbere il, eridu, edo manatuten dabenac; ordituten da-nac; osasunian gach andiya eguingo deutseen gauzac yaten dituzanac; bere burua il, edo peligruan iminten dabenac; eta norberari, edo besteri birao eguiten deutenac.

I. Cer da birao eguitia?

E. Da batec, edo norberen buruentzaco, edo besterentzaco gachen bat escatulia.

I. Eta ce pecatu dau birao eguitia?

E. Pecatu mortala, Jauna, gach andiren desioagaz eguiten bada; eta alango desio ba-garic bada, pecatu beniala beti ez arren.

I. Nortzuc, bada, eguiten daudee pecatu mortala alango desio bagaco biraoacaz?

E. Gueiyen partes gurasoac, eta nagusiye-
nac, euren azpicoen aurrian birao eguiten
daudeenac; eta birao eguiteco ecandua dau-
quienac, echiteco aleguinac eguiten ezpadituez.

I. Eta cegaitic ori?

E. Cegaitic euren esate, ta egenplu deun-
cagaz emoiten deutseen bestiai Jangoicoa ofen-
diyetaco bidia, ceineri derichon escandalua.

I. Cein da seigarrena?

E. Araguzco pecaturic ez eguitia?

I. Cer aguinduten da mandamentu onetan?

E. Izan gaitezala castoac, eta garbiyac pen-
samentuelan, berbetan, eta obretan.

I. Noc eguiten dau pecatu mortala manda-
mentu onen contra?

E. Ezauquera osoagaz pensamentu loiye-
tan gustu artzaiten dabenac, obrazco gauza-
ric eguiteco gogoric euqui ez arren; gauza
loiyac cantau, esau edo gustuz enzuten ditu-
zanac; eta norberagaz edo bestegaz escuea
loiyac edo gauza desonestuac dauquezanac,
edo euqui gura dituzanac.

I. Cein da zazpigarrena?

E. Inñori ecer ostu ez eitia.

I. Cer aguinduten da mandamentu onetan?

E. Ez quendu, ez euqui, ta ez gura izaltia
besteren gauzatic, yaubiaren borondatez
contra.

I. Noc eguiten dau pecatu mortala manda-
mentu onen contra?

E. Gauza oneataric edocein eguiten dabenac
edo beste moduren baten progimuari bere on-
dasunetan calle andiya eguiten deutsanac.

I. Eta progimuari bere ondasunetan, dan
moduan dala, calle eguiten deutsanac ce obli-
gaciño dauco?

E. Dauco obligaciño estua guztliyen erres-
cata albait leen eguiteco.

I. Cein da zortzigarrena?

E. Inñori falso testimonioric ez ereguitia, ta
guzurric es esatia.

I. Cer aguinduten da mandamentu onetan?

E. Ez progimua gaitic juzgu charric arin
eguitia, eta bere fallac ez esan, ta ez enzutia.

I. Noc austen dau mandamentu au?

E. Errazoe andi bagaric juzgu deunguia
eguiten dabenac, creitua quendu, secretoa
aguertu, edo guzurra esaten dabenac.

I. Eta ce obligaciño dauco progimuari crei-
tua quentzaiten deutsanac esaten dabela bera
gaitic eguin eztaben pecaturen bat, edo eguia
badau bere, zabal ez dabilena, edo aurpeguira
bere faltac esarten deutzazala?

E. Dauco obligaciñoa lengo moduan imin-
teco galdu eraguin deutsan creitua, edo esti-
maciñoa.

I. Cer eragozten da bederatzigarren, eta
amargarren mandamentuan?

E. Araguzco atseguinen, eta inñoren onda-
sunen desio bide bacoac.

M. Esan eguizuz Elessa Ama Santiaren mandamentuac.

Elessa Ama Santiaren mandamentuac dira bost.

Lelengoa, Meza osoa entzulia Domeca, ta Jayetan.

Bigarrena, urtian bein edola bere confesetia edo leenago eriyotzaco peligruric badago, edo comulgauco bada.

Irugarrena Pascua erresurrecciónocetan comulguetia.

Laugarrena Elessa Ama Santiac aginduten dabenian barau eguitia.

Bostgarrena Amarrenac, eta primiciyac Elessa Ama Santiari paguetia.

I. Cetaraco dira mandamentu onec?

E. Jangoiearen leguecoac obeto gordetaco.

I. Eta lelengora, cein da Meza entzulia, nortzuc dagoz obligauric?

E. Uso errazoezcora eldu dirian cristinau guztiyac.

I. Eta celan enzun biar da?

E. Atenciñoe, errespeto, eta debociñoe andiyagaz; Cristoren pasiño santuan, edo beste gauza onen baten pensetan dogula; edo debociñoerrecetan dogula.

I. Eta co pecatu eguiten dau motibo, edo errazoe on bagaric Meza enzuten eztabenac,

edo Meza guztian, edo zati andiyan atenciñoe бага dagoanac, edo Mezia uts eguitico peligruan yarten danac?

E. Pecatu mortala.

I. Eta bigarrenera, ta irugarrenera ceintzue dirian confesetia, ta comulguetia nortzuc dagoz obligauric?

E. Uso errazoascoa dauqueen cristinau guztiyac.

I. Eta deungaro confesetan, ta comulguetan dirianac gordetan dituez mandamentu orreec?

E. Ez, Jauna; eta confesiño, ta comuniño bacochean eguiten dituez pecatu mortala bi.

I. Eta ilteco peligruan confesore bagaric ecusten danac, cer eguin biar dau?

E. Contriciñozco aeto bat, confesetaco googaz.

I. Eta laugarrenera, cein dan barau eguitia, nortzuc dagoz obligauric?

E. Oguetabat urte cunplidu daudeenac.

I. Eta celan eguin biar da barau?

E. Egüerdiyan, eragotzi baco yanariyacaz, bazcari bacar bat eguiten dala.

I. Eta onetan faltan bagaric goshian ecer artu lei?

E. Bai, Jauna, artu lei onzabat leguez motibo arinenbat badago.

I. Eta gaubian cer artu lei?

E. Artu lei colaciñoan conciyenciya oneco gente artian usetan dana.

I. Eta molibo edo errazoe on bagaric barau eguiten eztabenac ce pecatu eguiten dau?

E. Pecatu mortala.

I. Eta nortzue dagoz obligauric vigiliya, ta barau egunetan oquellaric yan ez eiten; eurretan oquelia ta pesca gauzia nastian yator-dubaten yan ez eiten: eta arrauntzaric, ta esne gauzaric garizuman, bulda bagaric, yan ez eiten?

E. Uso errazoezco dauquen guztia.

I. Eta ce pecatu eguiten daudee gordetan eztiluezanac?

E. Pecatu mortala, orrectaricoren bat austen daudeen bacoehian.

Misericordiyazco obrac dira amalau.

Zazpi ezipiritualac, edo arimacoac, eta beste zazpi corporalac edo gorputzecoac.

Espiritualac dira oneec.

Lelengoa, ezlaquiyanari iracastia.

Bigarrena, biar dabenari conseju ona emoitia.

Irugarrena, erratuten dabena zucendutia.

Laugarrena, injuriac parcatutia.

Bostgarrena, triste dagoana consoletia.

Seigarrena, progimuaren fallac, ta argaltasunac paciyceniyatan eroatia.

Zazpigarrena, biciyac, ta ilac gaitic Jangoicoari erragulutia.

Corporalac dira oneec.

Lelengoa, gaishoac bisitetia.

Bigarrena, gose danari yaten emoitia.

Irugarrena, egarri danari edaten emoitia.

Laugarrena, cautiboac errescatetia.

Bostgarrena, billosac yanoitia.

Seigarrena, pobre bidestiyai ostatic emoitia.

Zazpigarrena, ilai lurra emoitia.

I. Cegaitic dereche misericordiyazcoac?

E. Justiciyaz zor eztirialaco.

I. Nos obliguetan daudee pecatueren beian?

E. Guizon yaquinen erechian necesidade andiya dagoanian.

I. Eta cer alcancetan dau batec misericordiyazco obra oneecaz, eta eguiten dituzan beste obra onacaz, nai aginduac diriala, nai borondatezcoac?

E. Jangoicoaren graciyan badago, merecietan dau arimaco graciya, eta ceruco gloriya gueiyagolutia; paguetan dituz bere pecatuen zorrac, eta alcancetan dituz Jangoicoagane ondasun andiyac, alan bere ariman, cein bere gaucetan, conbenietan bayacaz.

I. Cegaitie diñozu Jangoicoaren graciyan badago?

E. Cegaitie pecatu mortalien batec eguiten dituzan obra onacaz ecin merecidu lei ta ecin pagau lei pecatuen zorric; ta bai bacarrie alcanzau leiz, edocetanbere, Jangoicoaganie mesederen batzue.

Laugarren partia, ceinetan espliketan dirian artu biar dirian Sacramentuac.

Ecusi dogun celan daquizun cer sinistu, cer escatu, ta cer obrau biar dozun. Dacusgun orain celan daquizun cer errecibidu biar dozun; cein dan azquenengoa.

Esan eguizuz Sacramentuac:

Elessa Ama Santiaren Sacramentuac dira zazpi: lelengo bostac dira biar biarrac: izatez edo borondatez, ceintzue baga ecin salbau leiteque guizona echiten badituz desprecioz: beste biyac dira borondatezcoac.

Lelengoa, Bautismua.

Bigarraena Confirmaciñoa.

Irugarrena, Penitenciya.

Laugarrena, Comuniñoa.

Bostgarrena, Estramaunciñoa.

Seigarrena, Ordia.

Zazpigarrena, Matrimoniñoa.

I. Ce gauza dira Sacramentuac?

E. Dira señale aguri batzue, Jesu Cristo gueure Jaunac eguin, ta imini cituzanac, euren mediyoz emoiteco guri here graciya, ta birtutiac.

I. Cer da graciya?

E. Da izaite Jangoicozco bat, ceinec eguiten daben guizona Jangoicoaren seale, ta Ceruco herederu.

I. Eta celan derecho graciya oneri?

E. Santificantia, edo santuten dabena.

I. Eta bagoz onez ostian beste graciya modu batzue?

E. Bai, Jauna, bagoz beste batzue, ceintzuei derechee graciya lagungarriyac, eta arimaco arguiac liyac, ceintzu bagaric ecin asi ecin aurrera eroan, ta ecin acabau guñaiquian salbaciñoraco gauzaric.

I. Eta onee cer dira?

E. Jangoicoac pecatuen yauzi ez eiteco, eta obra onac eguiteco emiten deusecuzan socorru, edo laguntasun batzue, celangoac dirian Sermoiac, egenplu onac, uste uste baco eriyotzac; eta argui-aldi batzue, ceintzueaz, Jangoicoac arguituten dituzan gure entendiementuac; eta desio santu batzue, ceintzueaz biscortuten dituzan oneraco gure borondatiac.

I. Ce birtute emoitén daudee Sacramentuac graciya? batera?

E. Principalenac dira iru, Teologolac, ta Jangoicozcoac.

I. Ceintzue dira?

E. Fedia, Esperancia, ta Caridadea.

I. Cer da Fedia?

E. Ecusi eztoguna sinistutia Jangoicoac alan aguertu dabelaco.

I. Cer da Esperancia?

E. Esperetia Ceruco gloriya Jangoicoaren graciya, eta gueure obra enac diriala mediyo.

I. Cer da Caridadia?

E. Jangoicoa amelia gauza guztiyen ganián eta gueure progimuac gueure burua leguez, euracaz eguiten dogula, eurac gueugaz eguin daguiyen guraco gueunquian leguez.

I. Cetaraco da Sacramentu Sautu Bautismucoa?

E. Quentzaiteco pecatu originala, ta beste, batiatuten danagan, aurquituten dan edocein.

I. Cer da pecatu originala?

E. Da araco pecatua, ceinegaz yayoten garian guztiyoc, eta yatorcun gueure lelengo gurasoetarie.

I. Nondi zartzaiten da Elestara?

E. Bautismu Santuti.

I. Eta bago Ceruric batiatu eztirianentzat?

E. Ez Jauna.

I. Bada nora doaz batiatu bagarie ilten dirian seinchuac?

E. Linbora.

I. Eta ce pena dauquee lecu atan?

E. Ezlauquee sentiduco penarie Infernucoac leguez: baya bai Jangoicoaren arpeguiya inos ecusi ecina.

I. Orlan pecatu andiya da seiñari bautismoa galeraizolia?

E. Bai, Jauna, norberen erruz izan azquero.

I. Nortzue euqui daroe, bada, onetan errua?

E. Cerbaist eguiten daudeenac sortuta dagoan seintehua galtzaiteco, eta bardin onetaraco conseju deunguia emoitén daudeenac.

I. Celango pecatua da au?

E. Cerura guedar eguin daroan pecatua, eta Jangoicoac aserre castigau daroiana.

I. Nortzue gueiyago daroe onetan errua?

E. Yarten dirianac sabelian dauqueen seiña galtzaiteco peligruan.

I. Noc batiatu lei seiña ilteco peligruan dagoanian?

E. Edoceinec ondo batiatuten yaquin azquero.

I. Celan ondo batiatuten da?

E. Ezarten yacala seiñari ura, albaledi burura, ta ezipabere gorputzeco zatiric andiyenera, eta ura ezatorduan esaten diriala, batiatuteco adiagaz, berba onec: *Nic batiatuten zaitudaz Añaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren icenian. Amen.*

I. Eta cer eguin biar da seiña yayoten bada il echuriagaz, edo eceri craguiñen ezteutsala?

E. Batiatu bada ezpadan, usteldula urten ezpadan, ez talaco ilie dagoan: seiñale ciertua mobimenturic ez eguitia: eta esaten da alangoan: *Bici bazura: Nic batiatuten zaitudaz Añiaren, eta Semiaren eta Espiritu Santuaren icenian. Amen.* Eta bota ura berbacaz batera.

I. Eta cer eguingo da galtzaiten, edo botetan dan seiña bada denpora bacoa, ta guztiz chiquerra?

E. Batiatu ardura бага, ura ezarten, yacala berbacaz, batera, leen esan dan moduan.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Confirmaciñoacoa?

E. Confirmetaco, eta indartuleco Bautismo Santuan artu guendun sedian.

I. Eta uso-errazoezcora eldu danac ce pecatu eguiten dan Sacramentu au pecatu mortalian artzaiten dabela?

E. Pecatu mortala.

I. Bada cer eguingo dan pecatu ez eguiteco?

E. Confesau ondo leenago.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Penitenciayacoa?

E. Batiatu azqueroce pecatuac parquetaco.

I. Ce pecatu dira orreec?

E. Mortalac, eta benialac bere bai.

I. Cer da pecatu mortala?

E. Da esatia, eguitia, pensetia, edo gura izatia cerbaist Jangoicoaren leguiaren contra gauza pisuzcoan.

I. Cegailic derecho mortala?

E. Ilten dabelaco eguiten dabenaren arimia.

I. Celan ilten dan?

E. Graciyaren bicitzia quenduta.

I. Eta nos artzaiten dogu Sacramentu Penitenciayacoa?

E. Ondo confesadu ta ausoluciñoia artzaiten dogunian.

I. Eta ceinbat gauza biar dira ondo confesetaco?

E. Bost, Jauna.

I. Ceintzue dira?

E. Lelengoa, esamina conciyenciayacoa eguitia. Bigarrena, artzaitia damu eguiyazco bat Jangoicoa ofendidu dabelaco. Irugarrena, euquitia propositu firme bat pecaturic gueiyago ez eguiteco. Laugarrena, Confesoriari bere pecatu guztiyac artez esatia.

Bostgarrena, Confesoriac emoitene daben penitenciya cunpliyetaco gogoa artzaitia.

I. Cer da esamina conciyenciayacoa?

E. Leen ondo confesau zanic, eta artian eguin dituzan pecatuac memoriyara ecartia.

I. Nondi eguiten da esaminia?

E. Jangoicoaren legueco Mandamentuetati, bost, Elestacoetati, eta obra Misericordiyaz-

coetali; contua ateratan dabela batec mändamentu bacochian celan uts eguin daben, obraz berbaz, pensamentuz, edo desioz; beguiratu-ten dala norberen bicimodu, oficiyo, eta ezladuco obligaciñoetara bere: escatu azquero leenago Jangoicoari norberen pecatuac ezautuleco arguiya.

I. Ceinbat modutacoa da damua?

E. Bitacoa.

I. Ceintzue dira?

E. Contriciñozcoa, edo amodiyozcoa: eta Atriciñozcoa edo bildurrezcoa.

I. Cer da Contriciñozco damua?

E. Da sentimentu, pena, edo damutasun eguiyazco bat, pecatariyac bere biyotzian artzaiten dabena, Jangoicoa ofendidu dabelaco izanic ain ona: proposituagaz confesetaco, emendetaco, eta cumpliyetaco penitenciya.

I. Cer da atriciñozco damua?

E. Da sentimentu, pena edo damutasun eguiyazco bat, pecatariyac bere biyotzian artzaiten dabena, Jangoicoa ofendidu dabelaco, edo infernuaren bildurrez, edo pecatua-
ren ezaintasuna gaitie, edo graciya, eta gloriya galdu dabelaco; proposituagaz confesetaco, emendetaco, eta cunpliyetaco penitenciya.

I. Eta damu biyoetaric cein da onena?

E. Contriciñozcoa.

I. Cegaitie?

E. Contriciñozco amore garbiti datorrela-

co atriciñizcoa barriz, bildurreti; contriciñozco damuegaz, confesau baño leenago, parcatuten yacaz bateri pecatu mortalac, eta yarten da Jangoicoaren gracyan: baya atriciñozco bacarragaz ez, confesiñoagaz batera ezipada.

I. Eta damu biyoetaric cein euqui biar da ondo confesetaco?

E. Gueiyenac esaten daudee atriciñozcoa asco dala; baya obeto eta seguruago da contriciñozcoa eroatia: eta au euquitiarren eguingo dau confesetan danac.

I. Eta nos euqui biar da damua?

E. Confesoriac ansoluciñoa emon baño leenago.

I. Cer da propositua?

E. da gogo firmebat secula gueiyago Jangoicoa pecatu mortalagaz ez ofendiyetaco.

I. Cer da aozco confesiñoa?

E. Da esatia Confesoriari pecatu mortalac guztiyac, engañu bagaric, ta guzur bagaric.

I. Eta pecatu mortalen bat confesatzagaric echiten dabena, confesiño ona eguiten dau?

E. Echiten badau lotsaz, bildurrez edo esamina faltaz ez Jauna; baya bai aitzuta echiten badau, edo bere erru bagaric.

I. Eta acordetan bayaco guero, cer eguin biar dau?

E. Urrengo confesiñoan confesau.

I. Eta pecatu mortalen bat lotzas confesau

bagaric eebi dabena salbau lelteque penitenciya eguin da?

E. Ez, Jauna, Santuac baño penitenciya guciyago balegui bere, confesetan ezpadau pecatua.

I. Eta bago confesoriac ausolbidu ecin leiyen pecaturic?

E. Ez, Jauna, bada gustiyentzaco topaue dau erremediyoa bacochac bere erriyan, Erromara-bagaric.

I. Eta ondo confesetan dira euren pecatuac gachituta, edo edertuta leguez esaten di-tuezanac?

E. Ez, Jauna, esan biar dirialaco dauqueen gaistolasun guztiyagaz eta conciyenciya era-custen daben leguez.

I. Eta confesetan danac damu bagaric, propositu bagaric, edo penitenciya cunpliyetaco gogo bagaric confesiño ona eguiten dau?

E. Ez, Jauna, eguiten dau, bai, sacrilegi-yozco pecatu mortal andi bat; eta barriro confesau biar dituz esan cituzan pecatu guz-tiyac eguin eban sacrilegiyoazcoagaz batera.

I. Eta nortzue eguin daroez euren confesiñoac damu bagaric, eta propositu bagaric?

E. Oraciñoetariac apartelan eztirianac, eta emendiyoric eztauqueenac.

I. Eta damu eguiyazcoa, eta propositua art-zaiteco cer eguin biar da?

E. Confesetara yoan baño leenago Jaungoi-

coari escatu arren, lagundu daguiyola; gogo-ra ecarri bere magestadiac eguin deutzazan mesediyac, edo bere pasiño, ta eriyotzia, edo bere ontasun parebacoa; eta biyotz bi yotze-ric ascotan esan acto contriciñozcoa.

I. Cer da penitenciya edo satisfaciñoa?

E. Da paguetia pecatuac gaitie zor dan pe-nia, cunpliyetan dala confesoriac emonico penitenciya.

I. Eta penitenciya cunpliyetan estabena eguiten da-confesiño ona?

E. Confesoriac emoitien deutzanian bada-ico cunpliyetaco gogoa, bai Jauna, baya con-fesoriac emoitien deutzanian ezpadaico cun-pliyetaco gogoric, ez Jauna: guero cunplidu arren bere.

I. Eta ce pecatu da penitenciya ez cunpli-yetia edo lar luzatutia?

E. Pecatu mortala, Jauna pisuzcoa bada penitenciya ori.

I. Eta pecatuac gaitie zor dan penia ecin pagau lei penitenciyaagaz ezpada?

E. Bai, Jauna, paguetan da Jangoicoaren graciyan eguiten dirian obra on guztiyagaz bere, eta indulgenciya irabaciyaagaz.

I. Cer dira indulgenciya?

E. Dira graciya batzue, ceinen bitartez parcatuten dan, mundo onetan, edo Purga-toriyan, pecatuac gaitie pagau biar dan pe-nia.

I. Eta celan irabacico dira?

E. Eguiten diriala estadu graciya zcoan, agiinduten dirian gauzac.

I. Eta Purgatoriyoa doazanac, pagau eztaudeelaco mundu onetan euren pecatuen zorra, gue socorridu guñiaiz?

E. Bai, Jauna, gure pecatuen zorra paguelaco eguiten doguzan obra onecaz eurecaz, arimen oneraco eguiten badoguz.

I. Eta pecatu mortalian yausten dan guztiyan, biar dau batec bertati confesau parcatu daquiyoztat?

E. Ondo lizateque, baya eztago obligaciñoeric.

I. Cer eguin biar dau bada?

E. Artu pecatu eguin dabelaco contriciño zco damu eguiyazcoa, proposituagaz enmendetaco, ta confesateco Elessa Ama Santiac agiinduten dabenian.

I. Cer da pecatu veniala?

E. Da pecatu mortaleraco disposiciño bat.

I. Cegaitie derecho veniala?

E. Arin yausten dalaco berian guizona, eta arin parcatuten yacalaco.

I. Ceinbat ganza gaitie parcatuten yaco?

E. Bederatzi gaitie.

I. Ceintzue dira?

E. Lelengoa, Meza enzutia gaitie.

Bigarraena, comulguetia gaitie.

Irugarrena, ni becatariyan esatia gaitie.

Laugarrena, Obispoaren bendiciñoa gaitie.

Bostgarrena, ur bedeincatua gaitie.

Seigarrena, ogui bedeincatua gaitie.

Zazpigarrena, Aita guria esatia gaitie.

Zortzigarrena, Sermoiya enzutia gaitie.

Bederatzigarrena, bularra yoa gaitie, Jangoicoari parca escatuten yacala.

I. Cegaitie diñozu Jangoicoari parca escatuten yacala?

E. Eracusteco artu biar dogula pecatu venialen damu santua, euren parcaciñoa gauza oneetati alcanzau gura badogu.

I. Eta pecatu venialac confesau biar dira?

E. Ondo da confesetia, baya eztago obligaciñoeric.

I. Eta pecatu venialac baño ezpadaucac confesetan doianac cer eguin biar dau damua, ta propositua segurututeo?

E. Confesau, venialacaz batera, lecnago confesautu daucan pecatu mortalen bat bere.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Comuniñoa?

E. Biar dan leguez errecibidu azquero, izan dintzat gueure arimeen mantenimentua, eta graciya aci, ta gueiyagotu deinguzat.

I. Ceinbat gauza biar dira, bada, ondo comulguetaco?

E. Iru Jauna.

I. Ceintzue dira?

E. Lelengoa, barau naturalian egoitia.



Bigarrena, Jangoicoaren graciyan egotia.
Irugarrena, cer errecibietan dan yaquitia.

I. Cer da barau naturala?

E. Gaberdico amabiyetarie, eta comulgau artian ecerbere artu bagarie egotia.

I. Eta celan yarrico da graciyan comulguetaco, pecatu mortalian aurquituten dana?

E. Ondo confesauta, Jauna.

I. Eta confesau azquero gogora bayatoreo pecatu mortalen bat, cer eguin biar dau?

E. Barriro confesau, comulgau baño leenago.

I. Cer artzaiten dozu comulguetan zarianian?

E. Jesu Cristo Jangoico ta guizon eguiyazcoa, cein dagoan bene-benetan Sacramentu Santu Altaracoan.

I. Cer da Sacramentu Santu Altaracoa?

E. Ostiya consagrada, eta Caliz consagrada.

I. Nos iminten da Jesu Cristo ostiyan, eta Calizian?

E. Sacerdotiac consagraciñoco berbac esaten dituzanian.

I. Eta berba santuac esan baño leenago cer dago Ostiyan, eta cer Calizian?

E. Ostiyan dago ogui puscabat, eta Calizian ardao puscabat, ur tanga bategaz.

I. Eta consagraciñoco berbac esan azquero cer dago?

E. Ostiyan Jesu Cristoren gorputza, eta Calizian Jesu Cristoren odola.

I. Ostiya consagraduan bago gorputza baño beste gauzaric?

E. Bai Jauna, an dago Jesu Cristoren gorputzagaz batera bere odola, arimia, eta Jangoicotasuna; eta bardin Caliz consagraduan Jesucristoren odolagaz batera dago bere gorputza, arimia, eta Jangoicotasuna.

I. Consagraciñoco berbac esan azquero bago Ostiyan oguiric, edo Calizian ardaoric?

E. Ez Jauna, ezpada oguiyaren eta ardaoren irudiya, edo accidentiac; ceintzue dirian usaiña, coloria, gustua, eta ganecoac.

I. Biciric ala ilic dago Jesucristo ostiya, eta Caliz consagraduan?

E. Biciric, Jauna, Ceruan dagoan leguez baya estalduta oguiyaren eta ardaoren irudiya, edo accidentiac.

I. Ostiya consagrada erdituten edo apurtuten bada, erdituten ete da Cristoren gorputza?

E. Ez, Jauna, bada ain osoric dago zati batian, cein bestian; ain osoric ostiya chiquiyan, cein andiyan; eta ostiyaren apurric chiquerrenian, cein ostiya osoan: dagoalaco Jesu Cristo gntziya ostiya guztiyan, eta guztiya ostiyaren edo cein zatitan edo apurretan.

I. Pecatu mortalian comulguetan danac artzaiten dau Jesu Cristo?

E. Bai, Jauna, baya ez bere oneraco, ezpada bere caltian; eguiten dabelaco sacrilegiyo caragarri bat, eta Judasen pecatua.

I. Eta biardan moduan comulguetan dirianac cer gueyago eguin biar daudee frutu andiyagoac alcancetaco?

E. Comulgau baño leenago pensau ondo nor dan euren biyotzetara datorren Jaun andiya; eguin fedeco, esperantzaco, eta caridadeco actoac; artu humiltasun eta bildur santu andiyagaz, eta comulgau azquero esquer onac emon mesede ain andiya gaitic, urten bagaric bertati (Judasec leguez) Elestario campora.

I. Eta cer eguin biar da esquer onac emoiteco?

E. Munduco ardurac, eta cer eguin guztiyac aldabetara ichi, sensunac ta biyotza batu, ta egon pensetan: ¿nor etorri da nigana? ¿nor da Jesucristo? eta ¿nor nas ni? Escatu guero gura dan gustiya, bada, ondo comulgau bagara, eztago mesediac alcancetaco era ederragoric.

I. Orlan ezta ondo comulgau ta bertati Altarac bisiletia, Errosariyoa errecetia, edo Confesoriyac emon deustan penitenciya cunpliyetan egotia?

E. Ez, Jauna, bada orreec onac izan arren, eztira orduan eguin biar dirianac: orduan egon biar dau batec, ordu lauren baten gui-

chিয়েন, leen esan doguzan gauzac bere artian gogoan darabiltzala.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Estremaunciñocoa?

E. Iru gauzataraco.

I. Ceintzue dira?

E. Lelengoa, lengo bicitza gaistoaren errastu, ta ondaquinac quentzaiteco. Bigarrena, arimiari idarra emoiteco. Demoniñoaren tentaciñoen contra. Irugarrena, gorputzari osasuna emoiteco, arimiaren calteraco izango ezpada.

I. Eta uso-errazoezeora eldu cirianac, gaisbo peligruzcoagaz dagozanian, ete dauqueen Sacramentu Santuau artzaiteco obligaciñoric?

E. Bai, Jauna, eta pecatu mortala eguiten daudee aleguinez artzaiten ezpadaudee, edo pecatu mortalian eguiten badaudee.

I. Bada cer eguingo dau pecatu mortalian dagoanac ondo artzaiteco?

E. Confesau leenago ta ecin confesau bada, artu contriciñozeo damua.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Ordiacoa?

E. Consagretaco, ta ordenduteco Elestario ministro dignoac, celan dirian Sacerdotiac, Diaconuac, eta bestiac.

I. Eta Elestario ministroai, besteen artian bere, Sacerdotiai zor yaque errespeto andiyagoo?

E. Bai Jauna.

I. Otaraco da Sacramentu Santu Matri-
moniocua?

E. Ezconduteco ta escondei graciya emoi-
teco, ceinegaz alcarregaz baquian bici dite-
zan, eta Cerureco aci daguiyezan seme alabac.

I. Eta Sacramentu Santu au artzaiteco gra-
ciyan egon biar daudee ezconduten dirianac?

E. Bai, Jauna, pecatu mortalaren beian.

I. Eta graciyan eztagozanac celan prestau-
co dira ezconduteco?

E. Ondo confesauta.

Pecatu capitalac dira zazpi.

Lelengoa, Soberbiya.

Bigarrena, Avariciya.

Irugarrena, Luxuriya.

Laugarrena, Iria edo aserracunsia.

Bostgarrena, Guleriya.

Seigarrena, Enbidiya.

Zazpigarrena, Naguitasuna.

I. Cegaitic emoten deutseesu pecatu onei
pecatu capitalen icena, gueiyenian pecatu
mortalen icena emoitien bayatee?

E. Emoitien yaque pecatu capitalen ucena,
dirialaco beste pecatuen buru, iturri ta sus-
traiyac leguez: eta pecatu mortalen icena
echatorque ain ondo, bada ascotan venialac
baño eztira.

I. Nos dira mortalac?

E. Jangoicoaren eta progimoaren carida-
diaren contra dirianian.

I. Nos dira caridadiaren contra?

E. Eurac gaitic austen danian Jangoicoa-
ren, edo Elestsiaren mandamentuaren bat gau-
za pisuzcoan.

I. Cer da Soberbiya?

E. Bestiac baño gueiyago izateco gurari
larregui bat.

I. Cer da Avariciya?

E. Da ondasunen gurari larregui bat.

I. Cer da Luxuriya?

E. Gorputzeco gustu loiyen gurari char bat.

I. Cer da Iria edo Aserracunzia?

E. Benguelaco gurari cital bat.

I. Cer da Guleriya?

E. Yateco, ta edateco gurari larregui bat?

I. Cer da Enbidiya?

E. Besten ona ecusi ecina.

I. Cer da Naguitasuna?

E. Gauza oneraco yausitasun, edo atzera-
cuntza bat.

Zazpi pecatu oneen contra dagoz zazpi virtute.

Soberbiyaren contra, humildadia.

Avariciyaren contra, prestutasuna.

Luxuriyaren contra, castidadia.

Aserracunciaren contra, paciyeiciya.



Guleriyaren contra, yan edanian beguiratua izaitia.

Enbidiyaren contra, caridadia.

Naguilasunaren contra, bizkortasuna.

*Arimiaren areriyoc, ceitzuc ganic inēs
eguin biar dogun dira iru.*

Lelengoa, Mundua.

Bigarrena, Demonioa.

Irugarrena, Araguiya.

I. Nor da mundua?

E. Guizon mundu zaliac, ta gaistoac.

I. Nor da Demonioa?

E. Da Jangoicoac ceruan eguin eban Anguerubat, cein yaigui zalaco, beste ascogaz batera, bere Magestadiaren contra, bota ebana Infernura bere lagunagaz batera, ceintzuei emoitzen deitsegu Demonioen icena.

I. Nor da Araguiya.

E. Da gueure gorputza bera, bere gurari deungacaz.

I. Celan vencidu, ta inēs eguiten da mundua ganic?

E. Bere andiqueriyai ta vanidadiai yaramonezanagaz.

I. Celan vencidu, ta inēs eguiten da araguiya ganic?

E. Oneganic inēs eguiten da, ta au venci-

yeian da gorputza neque pian erabiliyagaz, bere gustuac ucatuagaz, ta barau eguinagaz. Au da areriyoric andiyena, cegaitie ece ecin gueuganic bota guñai araguiya; mundua ta demonioa bai.

Virtute Teologalac dira iru.

Lelengoa, Fedia.

Bigarrena, Esperancia.

Irugarrena, Caridadia.

I. Eta celan eztoqu utsic eguingo iru virtute oneen actoac eguiteco daucagun obligaciñoan?

E. Debociñoz ta sarri erreccetan dogula [edocein cristiñauc eguin biar leuquian leguez] *Credoa ta Aita guria*: eta biyotzerie esaten dogula *Neure Jesucristo Jauna*.

Virtute Cardinalac dira lau.

Lelengoa, Prudenciya.

Bigarrena, Justiciya.

Irugarrena, Fortalecia, edo Sendotasuna.

Laugarrena, Tenplancia, edo yanedanian beguiratua izaitia.

Gorputzeco Cenzunac dira bost.

Lelengoa, Beguiyacaz ecustia.

Bigarrena, Belarriyacaz enzulia.



Irugarrena, Aoagaz gustu artzaitia.

Laugarrena, Surracaz usain eguitia.

Bostgarrena, Esecuacaz ucultia.

1. Cetaraco emon euscun Jangoicoac
cenzunac, eta gorputzeco alde guztiyac?

E. Guztiyacaz ta gauza guztiyetan bere
serbiyetaco.

Arimaco Potenciya dira iru.

Memoriya, entendimentua, eta borondatia.

1. Cetaraco emon euscun Jangoicoac Me-
moriya?

E. Bera, ta bere mesediac gogora ecarteco.

1. Cetaraco emon euscun entendimentua?

E. Ezagututeco gueure Jauna, eta bera
gogoan erabilteco.

1. Cetaraco emon euscun Borondatia?

E. Bera ametaco ontasunec andiyena le-
gueuz, eta beragaitic progimua.

1. Eta cer da gueure arimia, ceinenac di-
rian potenciya oneec?

E. Da Espiritu bat, iñoz bere ilgo eztana,
cein eguin eban ecebere eceric Jangoicoac
bere antzera ta irudira.

Espiritu Santuaren doia dira zazpi.

Lelengoa, Yaquituriyaco Doia.

Bigarrena, Entendimentuco Doia.

Irugarrena, Consejuc Doia.

Laugarrena, Ciencivaco Doia.

Bostgarrena, Fortalezaco Doia.

Seigarrena, Piedadeco Doia.

Zazpigarrena, Jangoicoaren bildurraren
Doia.

Espiritu Santuaren Fructuac dira amabi.

Lelengoa, Caridadia.

Bigarrena, Baquia.

Irugarrena, Biotzeco anditasuna.

Laugarrena, Benignidadia, edo erruquita-
suna.

Bostgarrena, Fedia.

Seigarrena, Continenciya.

Zazpigarrena, Arimaco poza.

Zortzigarrena, Paciyenciya.

Bederatzigarrena, Ontasuna.

Amargarrena, Mansotasuna.

Amacagarrena, Modu ona.

Amabigarrena, Castidadia.

*Bienaventuranzac edo, Zoriyontasunac dira
zortzi.*

1. Zoriyonecoac biyotzeli pobre dirianac,
bada eurana izango da Ceruco Erreinua.

2. Zoriyonecoac mansoac, bada eura izan-
go dira lurrare yaube.

3. Zoriyonecoac negar eguiten daudeenac,
bada eura izango dira pozluac.

4. Zoriyonecoac onaren gose ta egarri di-
rianac, bada eura asiatic izango dira.

5. Zoriyonecoac erruquiorrac, bada eurenizaco bere erruquiya izango da.

6. Zoriyonecoac biyotz garbicoac, bada eulac ecusico daudee Jangoicoa.

7. Zoriyonecoac baquetsuac bada euren emongo yaque Jangoicoaren semeen icena.

8. Zoriyonecoac onac izanagaitic persecuciñoia daruenac, bada euren izango da Ceruelaco Erreinua.

I. Cer esan dogu orain?

E. Zortzi Bienaventuranza, edo Zoriyontasunac.

I. Ce gauza dira Zoriyontasun oneec?

E. Dira Espiritu Santuaren virtuteetarie, eta doietarie datozan obrarie onenac.

I. Nortzuc dira biyotzeli pobriac?

E. Eztaudeenac gura munduco onrarie, ez aberaztasunic, ezta laburren bere: edo beintzat euren biyotza ifini eztaudeenac.

I. Nortzuc dira mansoac?

E. Aserrerie artzaiten eztaquienac, ezta bere apurric bere.

I. Celan izango dira lurraren yaube?

E. Euren buruen yaube izanda.

I. Nortzuc dira negar eguiten daudeenac?

E. Atseguinic laburrenac bere echiten dituezanac.

I. Nortzuc dira oparen gose, ta egarri dirianac?

E. Aleguinaz ecetan bere utsie eguin gura ez lauqueenac.

I. Norzut dira erruquiorrac.

E. Iñori bere, on baño besterie, eguin gura ezteutseenac.

I. Nortzuc dira biotz garbicoac?

E. Euren gurari charrai ucatuten deuseenac.

I. Nortzuc dira baquetsuac?

E. Euren buruari, ta besteenai baque ona emon daroyoenac.

I. Nortzuc dira onac izanagaitic persecuciñoia daruenac?

E. Gauza on guztietan sendo ta firme dagozanac, persiguiduac izan arren.

I. Cegaitic dereche onei zoriyontasunac?

E. Euren dagoalaco bicitza onetan zoriyonecoac izaitia, eta Ceruaren esperanza menelacoa.

I. Ceinbat dira guizonaren acabuco gauzac?

E. Lau Jauna.

I. Ceintzuc dira?

E. Eriyotzia, Judiciyoa, Infernua, eta Gloriya.

I. Cer da Gloriya?

E. Da estadu edo bicimodu bat alde guztietati eguin eguina, ceinetan dagozan on guztiiac gachic bapere bagarie: Infernuan gach guztiiac onic bapere bagarie aurquituten dirian leguez.

I. Eta infernuti librau, eta Gloriya alcan-
cetaco cer eguin biar da ?

E. Mandamentuac gorde.

I. Eta bagoz bideren batzuc mandamen-
tuac errazago gordetaco ?

E. Bai Jauna.

I. Ceintzuc dira ?

E. Sarri Confesetia, ta Comulguetia; gos-
nian eguneco obra guzliyac Jangoicoari opa-
tulia; egunian egunian mez-enzutia; Ama
Virginari Errosariyoa errecetia; liburu de-
botoetan iracustia; oracño mentala; gaubian
gaubian concienziya esaminetia: eta guzliya
baten esatiarren, Confesore yaquitun, virtu-
te andico, ta ondo beguiratu bat artu, ta
gauza guztiyetan bere esanera egotia.

M. Ondo diñozu zuc ori, bada Jangoicoa
serbidu, ta bicitza onian irauteco laguntasun
onian andiya da Confesore on bat euquitia.
Eguizuz, bada, zuc bere aleguin guzliyac to-
petaco, San FRANCISCO SALESEC, eta Santa TE-
RESAC diñueen leguez, ascoren artian oneen
bat; eta Confesoria izango yatzu Angueru bat
leguez, ceinec mandamentu Santuen bideti-
eroango zaituzan Ceruco Gloriya gozetara el-
zaitartian.

M. Jangoicoac guztiyoc ara eroan gaguiza-
la. Amen.



CONFESIÓN GENERALA.

Ni pecatariyan confesetan nayaco Jan-
goico guztiz poderosoari, Santa Mariya beti
Virginari, San Miguel Arcangeluari, San
Juan Bautistiari, San Pedro, ta San Paulo
Apostoluai, Santu guztiyai, ta ceuri neure
Aita espirituala, eguin dodala pecatu peasa-
mentuegaz, berbiagaz, ta obriagaz: neure er-
ruz, neure erruz, neure erru andiz: orro-
gaitic erregututen deutsal Santa Mariya beti
Virginari, San Miguel Arcangeluari, San
Juan Bautistiari, San Pedro, ta San Paulo
Apostoluai, Santu guztiyai, ta ceuri neure
Aita espirituala, erregutu daguiyozula nigai-
tic gueure Jaun eta Jangoicoari. Amen.

ACTO CONTRICIÓNZCOA.

Neure Jesu Cristo Jauna, Jangoico ta gui-
zon eguiyazcoa, neure criyadoria, ta Erre-
dentoria; zukan sinistuten dot, zukan espe-
relandot, zu ametan zaitudaz gauza guztiyen
ganian; zu izanic ain ona, ofendidu zaituda-
zalaco damu dot Jauna, damu dot neure bi-
yotz guztiric zure Magestadia ofendidua: eta
iminten dot propositu firmebat, ceure graci-
yaz batera, ez gueiyago ofendiyetaco, eta
apartetaco ofendidu ciñaidazan ocasiño guzti-

yelarie; neure pecatuac confesetaco, ta cun-
pliyetaco emoitén yatan penitenciya. Ofreci-
yelan deutsudaz, Jauna, neure bicitzia, obrac
eta trabajuac neure pecatuen pagureco: eta
confiyetan dot ceure ontasun eta misericor-
diya cabubacoagan parcatuco deustazuzala
ceure odol guztiz preciosoagaitie, ta ceure
pasño ta eriotziagaitie, eta emongo deusta-
zula graciya emendelaco, eta irauteco ceure
serviciyo Santuan neure bicitzia emoitartian.
Amen.

Fedeco, Esperanzaco, eta Caridadeco Actoac.

Sinistuten dot Aita Jangoicoagan, sinistu-
ten dot Seme Jangoicoagan, sinistuten dot
Espiritu Santu Jangoicoagan, sinistuten dot
Jangoicoa hamar bat iru personetan.

Sinistuten dot Trinidadeco bigarren per-
sonia Ama Virginiaren Sabel guztiz garbiyan
Espiritu Santuaren graciya guizon eguin
zala, eta gu zalbatarren yayo zala, curtzian
il, biztu, ta cerura igon ebala; eta Judiciyoco
egunian etorrico dala biciyac eta ilac juzgue-
tan; emoiteco onain betico gloriya, eta deun-
gai betico Infernu; Sinistuten dot Santísimo
Sacramentu Altaracoan dagoala Jesu Cristo
gueure Jauna Jangoico ta guizon eguiyazcoa,
Ceruan dagoan berbera: eta sinistuten dot
Ellessa Ama Santiac sinistuten eta iracasten

daben guztiya; eta fede onetan beti bici, eta il
gura dot.

Esperetan dot Aita Jangoicoagan, Espe-
retan dot Seme Jangoicoagan, Esperetan dot
Espiritu Santu Jangoicoagan; esperetan dot
neure Jangoicoac parcatuco deustazala neure
pecatu guztiyac, eta emongo deustala Ce-
ruco gloriya; eta mundu onetan ara eltzai-
teco biar dodazan graciya ta laguntasun guz-
tiyac, bere misericordiya cabubacoagaitie,
Jesucristo gueure Jaunaren merecimentuac
gaitie eta bere graciyaegaz eguiten dodazan
obra onac gaitie.

Ametan dot Aita Jangoicoa, ametan dot
Seme Jangoicoa, ametan dot Espiritu Santu
Jangoicoa, ametan dot neure Jangoicoa neu-
re biyotz guztiti, eta gauza guztiyac baño
gueiyago, dalaco bera guztiz ona ta amoro-
soa: eta bere amorearren ametan dot neure
progimua neure burua leguez. Amen.

*Goshian oeric yaiqui, ta bertati Jangoicoari
fede bici bategaz beguiratu, ur bedeincalua
artu Curtze Santiaren eguin, eta egun alaco
obrac opaluteco.*

ORACIÑO.

Esquer andiyac eta alabanzac emoitén
deutsudaz, neure Jangoicoa, ecereceli criya-

du nozulaco, Cristiñau eguin eta Jesu Cristoren odol preciosogaz erredimidu nozulaco: orain artian gorde nozulaco, eta orain guin ceure escu santuetaric artu dodazan mesede guztiyac gaitic.

Aita guria, ta Ave Mariya.

Opa deutsudaz, Jauna, ceure gloriyaric andiyeneraco gaurco neure pensamentu, berba, neque, ta obra guztiyac, neure Jesus onaren odol, ta merecimentuecaz batera.

Aita guria, ta Ave Mariya.

Jauna neure pecatu guztiyen damua dauca, ceu gauza guztiyen ganean ametan zaitudazalaco; borondale sendo bategaz, ceure graciya lagun dodala, ceu ofendidu baño leenago neure bicitzia galtzaiteco. Baita artzaiten dot gogoa irabasteco gaur dirian Indulgenciya guztiyac neure pecatuen satisfaciñoraco, ta Purgatoriyoco arimen oneraco: eta orretaraco obapere deutsudaz gaurco neure neque, biar, atsacaba, ta pena guztiyac: eta obeto artuac izan ditezan, ofrecietan deutsudaz Ama Virginiaren escuetati, ceineri esquetan deutsadan bere concecño garbiya gaitic, ta bere doloriac gaitic, gorde naguiála gaur, da beti, gach guztiyetic, bein bere ceure graciya galdu eztaguidantzat. Amen.

Iru Ave Mariya Ama Virginiari.

Anqueru Guardacoari oraciñoa.

Neure Angueru Guardaco maitia: gorde naguizu gaurco neure pausu, berba: ta gauza guztiyetan, bencidu ez naguiyentzat neure areriyoac; eguin eztaguidan ceure aurrian neure Jangoicoaren contraco gauzaric: neure oraciño, ta obra onac eroan eguizuz Jangoicoaren Tronuaren aurrera, ta alcanzadu eguidazu guero eriyotza on bat. Amen.

Aita guria, ta Avemariya.

San Joseperi Oraciñoa.

Neure Aita San Josepe bedeincatu gozoa; Ama Virginiaren esposo eguiyazcoa; Jesus guztiz gozoaren Aita ordecoa; eta eriyotzaco orduan dagozan tristien anparu segurua: nie artzaiten zaitudaz egun onetan neure bitarteco ta defensoretzat; lagun eguidazu, bada, gaurco ta neure bici guztico obra, berba, ta gauza guztiyetan, dirianac izan ditezanzat neure Jangoicoaren gloriyaraco; eta neure eriyotzaco ordu estuan lagundu eguidazu, eta eroan eguizu neure arimia Jangoicoa alabetan ceugaz batera, betico gloriyan. Amen.

Aita guria, ta Ave Mariya.



*Gaubian, oian sartu baño leenago ur bedein-
calua artu, curtze Santiaren eguin, eta
guero esango diarian.*

ORACIÑOAC.

Neure Jangoicoa, emon eguidazu graciya
gau au ceu ofendidu bagarie iragoiteco, eta
gorde naguizu gauza deunga guztietarie.
Amen, Jesus Mariza, ta Josepe.

Aita guria, ta Ave Mariya.

Ama Virginiari Oraciñoa.

O Virgina Mariya, Jangoicoaren Ama
maitia; eta pecatari triste guztiyen miseri-
cordiyazco Ama! lagundu eguidazu gau one-
tan, librau naguizu gach guztietarie, eta ez
naguizu desanparau neure eriyotzaco orduan.

Iru Ave Mariya.

Angueru Guardacoari Oraciñoa.

Neure Angueru Guardacoa, lagundu egui-
dazu, eta gau onetan gorde naguizu: Jesus
MARIYA, JOSEPE socorridu naguizue. Jangoi-
coac emon daigula bere graciya, eta guero
belico gloriya. Amen.

Aita guria, ta Ave Mariya.

Maya bedeincatuleco modua.

Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu San-
tuaren icenian. Amen.

Neure Jauna eta Jangoicoa, gueure espe-
rancia dago ceugan, eta zuc emoiten dozu
bere denporan yateco biar doguna. Ceure es-
cua zabaldu, ta guztiyoc bendeciñoz betetan
gozuz.

*Aita guria ta Ave Mariya: eta guero
esango da.*

Ondasun guztiyen emoilia, eta gueure
Jauna; ceure escuetarie artu, eta yan biar
dogun guztiya zuc bedeincatu eguizu, Jesu
Cristo ceure Semia gaitie: Aitiac, eta Se-
miac, eta Espiritu Santuac guztiyoc bedein-
catu gaguiyezala, eta bere gloriyaco Maira
belico eroan gaguiyezala. Amen.

Yan azquero graciya emoiteco.

Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu San-
tuaren icenian. Amen.

Esquerrac, eta alabanzac emoiten deus-
guz, Jauna, orain ta beti eguin deuscuzan
mesede guztiyac gaitie. Ceuganic gueure
ganera etorri dan bendeciño, ta mesede onegai-
tic mundu guztiyac alabau zaguizala. Amen.

Aita guria, ta Ave Mariya.



Gueure onguin guztiai, Jauna, pagau eguiyezu ceure icen santua gaitic; eta arima fiyel guztiiac eroan eguizuz ceu alabelan. A.

Aita guria, ta Ave Mariya.

Arima fiyel guztiai, Jangoicoac emon da-guiyoela betico descansua, ta gueuri emon daigula bere graciya, ta baquia.

Emen batu gaituzan Jaunac, batu gagui-zala guztiioc Ceruco gloriyan. Amen.

Ave Mariyetacoac.

✠. Angueruac barri onac Ama Virginiari emon eutsazan.

✠. Eta espiritu Santuaren graciya Jan-goicoaren Semia bere sabelian sortu zan.

Ave Mariya.

✠. Ara emen Jaunaren eselabia.

✠. Eguin bidi nigan zuc esan dozuna.

Ave Mariya.

✠. Jangoicoaren Semia guizon eguin zan.

✠. Eta gure artian bici izan zan.

Ave Mariya.

✠. Jangoicoaren Ama Santia erregutu egui-zu gu gaitic.

✠. Cristoren promeseen dignoizan gaitazan.

ORACIÑOIA.

Emon eguizu arren, Jauna, gueure arime-tan ceure graciya, Angueruac barri onac ecarri, ta Cristo ceure Semiaren Guizon egui-tia ezagutu dogunoe, bere Pasiño ta Curtzia gaitic, betico gloriyara eroanac izan gaiten-zan. Amen.

Meza erasoteco modua.

Sac. In nomine Patris et Filii et Spiritus Santi Amen. Introibo ad Altare Dei.

R. Ad Deum qui lætificat juventutem meam.

S. Judica me Deus, et discerne causam meam de gente non sancta, ab homine iniquo et doloso erue me.

R. Quia tu es Deus fortitudo mea: quare me repulisti, et quare tristis incedo dum affligit me inimicus.

S. Emite lucem tuam, et veritatem tuam, ipsa me deduxerunt, et adduxerunt in montem sanctum tuum et in tabernacula tua.

R. Et introibo ad Altare Dei, ad Deum qui lætificat juventutem meam.

S. Confitebor tibi in cithara, Deus, Deus meus, quare tristis es anima mea, et quare conturbas me.

R. Spera in Deo, quoniam adhuc confitebor illi: salutare vultus mei, et Deus meus.

S. Gloria Patri, et Filio, et Spiritui Sancto.

R. Sicut erat in principio, et nunc, et semper, et in sæcula sæculorum. Amen.

S. Introibo ad altare Dei.

R. Ad Deum qui lætificat juventuten meam.

S. Adjutorium nostrum in nomine Domini.

R. Qui fecit Cælum, et terram.

S. Confiteor Deo omnipotenti &c. et vos fratres orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

R. Misereatur tui Omnipotens Deus, et dimisis peccatis tuis, perducatur te ad vitam æternam.

S. Amen.

R. Confiteor Deo Omnipotenti, Beatæ Mariæ semper Virgini, Beato Michaeli Archangelo, Beato Joanni Baptistæ Sanctis Apostolis Petro, et Paulo, omnibus Sanctis et tibi Pater: quia pecavi nimis cogitatione, verbo, et opere, mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa. Ideo precor beatam Mariam semper Virginem, beatum Michaellem Archangelum, beatum Joannem Baptistam, Sanctos Apostolos Petrum, et Paulum, omnes Sanctos, et te Pater, orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

S. Misereatur vestri Omnipotens Deus et dimissis peccatis vestris perducatur vos ad vitam æternam.

R. Amen.

S. Indulgentiam, absolutionem et remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis Omnipotens, et misericors Dominus.

R. Amen.

S. Deus tu conversus vivificabis nos.

R. Et plebs tua lætabitur in te.

S. Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam.

R. Et salutare tuum da nobis.

S. Domine exaudi orationem meam.

R. Et clamor meus ad te veniat.

S. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

S. Oremus &c.

S. Kyrie eleyson. R. Kyrie eleyson.

S. Kyrie eleyson. R. Christe eleyson.

S. Christe eleyson. R. Christe eleyson.

S. Kyrie eleyson. R. Kyrie eleyson.

S. Kyrie eleyson.

S. Dominus vobiscum.

R. Et cum Spiritu tuo.

S. Per omnia sæcula sæculorum.

R. Amen.

Epistolia acabau ta. R. Deo gratias.

S. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

S. Sequentia Sancti Evangelii secundum &c.

R. Gloria tibi, Domine.



— 74 —

Evangelioa acaban ta.

R. Laus tibi, Christe.

S. Orate fratres &c.

R. Suscipiat Dominus sacrificium de manibus tuis, ad laudem, et gloriam nominis sui, ad utilitatem quoque nostram, totiusque Ecclesiæ suæ sanctæ. S. Amen.

Prefaciogoa esaten danian.

S. Per omnia sæcula seculorum. R. Amen.

S. Dominus vobiscum. R. Et cum spiritu tuo.

S. Sursum corda. R. Habemus ad Dominum.

S. Gratias agamus Domino Deo nostro.

R. Dignum et justum est.

Pater nosterra esan azquero.

S. Et ne nos inducas in tentationem.

R. Sed libera nos a malo.

S. Pax Domini sit semper vobiscum.

R. Et cum Spiritu tuo.

Ite missa est, *edo* Benedicamus Domino.

R. Deo gratias.

S. Requiescant in pace.

R. Amen.

S. Pater, et Filius, et Spiritus Sanctus.

R. Amen.


— 75 —

S. Dominus vobiscum. R. Et cum spiritu tuo.

S. Sequentia Sancti Evangelii secundum &c. R. Gloria tibi Domine.

Evangelioa acaban ta. R. Deo gratias.

LAUS DEO.



Es propiedad del autor. y nadie podrá reimprimirle sin su licencia.



CATÁLOGO

de las obras de 1.ª y 2.ª enseñanza
que se hallan de venta en casa de la
Viuda de D. Nicolas Delmas, calle del
Correo número 16.

Cartilla ó silabario de San Ildefonso.

Caton de San Casiano con lámina.

Naharro, método práctico de enseñar á leer.

Seijas, caton metódico de los niños, dis-
puesto para aprender á leer.

García, manual de los niños, ó enseñanza
práctica de lectura.

Astete, catecismo de la doctrina cristiana,
añadido por Lueca en 32.º

Id. el mismo catecismo edicion prolon-
gada.

Id. id. el mismo catecismo edicion eco-
nómica en bascuence por el Cura de Busturia.

Id. id. id. edicion prolongada id. por
D. Juan Antonio Moguel Urquiza de Mar-
quina.

Olacchea, ó sea doctrina esplicada con mi-
sa, en bascuence.

Amigo de los niños, traducido por D. Juan
Escorquiza, nueva edicion con grabados.

Fábulas de Samaniego, en verso castellano,
nueva edicion.

Páginas de la Infancia, por D. Angel María
Terradillos.

Lecciones escogidas para los niños, por el
P. Pascual Suarez.

Martínez de la Rosa, libro de los niños en
prosa y verso con grabados.

Guía de la Juventud, para uso de las escuelas.
Olivan, Manual de Agricultura, encartona-
do muy útil para las escuelas.

Rueda, la escuela de instruccion primaria.
Nueva escuela de instruccion primaria, dis-
puesta por D. L. Alemany.

Aranda, cuaderno de lectura, con distintos
carácteres.

Herranz, compendio mayor de la Gramáti-
ca castellana.

Terradillos, gramática castellana.

Prontuario de Ortografía por la Academia,
última edicion.

Coleccion de muestras de letra española,
por Iturzaeta.

Id. de id. de letra inglesa.

Id. de Carteles para las escuelas, por
Flores, sueltos encartonados y barnizados.

Tablas de multiplicar y de las cuatro reglas,
aumentadas con el sistema métrico.

Aritmética por D. Luis de Echevarría,
primero y segundo cuaderno.

Papel pautado superior calidad (método de
Iturzaeta) desde el n.º 4 hasta el 6 inclusive.



Id. id. id. (método de Torío) en planillas, desde el núm. 4 hasta el 9 inclusive.

Id. id. con orla litografiada para planas de lujo.

Id. blanco continuo de todas clases y calidades.

Id. en resmillas blanco ó azulado.

Id. de hilo ó de tina.

Id. de id. en resmillas.

Plumas de ave, muy buenas.

Id. metálicas, superiores.

Tinta por medida, en frascos y por mayor.

Obleas en cajas por onzas y libras.

Lacre rojo, negro, verde y de todos colores.

Diccionario de la lengua castellana por Campuzano, última edicion.

Id. id. id. por la Academia Española.

Chantreau gramática francesa.

Blanc, diccionario francés-español y español francés, pasta.

Taboada id. id. id. novísima edicion.

Araujo, gramática latina.

Nebrija, gramática latina.

Prontuario de Teología moral por Troncoso

Valbuena, diccionario latino-español.

Ascuénaga, curso elemental de moral y religion.

Mazo, catecismo de doctrina cristiana explicado.

Pinton, compendio histórico de la religion.

Ascuénaga, compendio de lecciones de historia universal.

Arrue, elementos de mitología.

Lista, elementos de matemáticas.

Cortazar, tratado de Aritmética.

id. id. id. Algebra elemental.

id. id. de id. id. y superior.

id. id. de geometría elemental.

id. id. id. analítica.

id. id. de memoria sobre el cálculo.

Aldana, elementos de cristalografía por Muller.

Villabuena, curso de dibujo lineal, dos cuadernos.

La Lande, tablas de logaritmos.

Diario de Navegacion en folio.

Id. en 4.º id.

Cuaderno de Vitácora. etc. etc.

OBRAS DE RELIGION.

Camino recto y seguro para llegar al cielo.

Villacastin, ejercicios espirituales.

Sales, vida devota.

Meditacion por Fr. Luis de Granada.

Coloquios con Jesucristo.

Visitas al Santísimo.

Ejercicios de San Ignacio.

Oficio parvo de la Virgen con el de difuntos.



Coleccion de Meditaciones.

Reflecciones piadosas.

El Divino amor.

Práctica del amor á Jesucristo.

Avisos de la providencia.

Conformidad con la voluntad de Dios.

Despertador Eucarístico.

Armonía de la Razon por el Padre Almeida.

Ligorio Dominicas.

Esposa de Jesucristo ó la monja Santa.

Año cristiano que comprende brevemente las vidas de los Santos, el martirologio las fiestas y otras observaciones de la Iglesia, ó sea esplicacion de lo que se contiene en el Calendario por D. Benito de Castro, Presbítero.

Anuario de María glorias y triunfos de la Iglesia de España por Troncoso.

Avisos y Consejos de la Madre de Dios.

Ademas, se despachan todos los enseres necesarios para oficinas, escritorios etc., igualmente se encarga de traer obras de cualquier punto del reino y extranjero.

En el mismo establecimiento se continúa trabajando en los ramos de imprenta, litografía y encuadernacion á precios convencionales.

